

Jarrera linguistikoak hartzea: Kataluniako eta La Franjako nerabeek katalanarekiko dituzten jarreraren zeharkako azterketa¹

Josep Ubalde²

Soziolinguistikako eta Komunikazioko
Unibertsitate Zentroa. Bartzelonako Unibertsitatea

Laburpena. Hizkuntza baten hiztunen jarrera linguistikoek eragin handia izan dezakete hizkuntza horren egoeran eta bilakaeran, batik bat hiztun-komunitateen arteko ukipena dagoen kasuetan. Ikerlan honetan, Kataluniako eta La Franja deritzon Aragoiko mugako eremu katalanduneko zenbait herritako DBHko lehen mailako nerabeen jarrera linguistikoaren analisi konparatibo bat egiten da. Zehatz-mehatz esanda, ikerlan honen helburu nagusia da jakitea zein diren nerabeen jarrera linguistikoaren kausak. Horretarako, erregresio lineal anizkoitzeko eredu bat erabili dugu, hainbat hurbilketa enpiriko eta teorikotako aldagai esanguratsuak konbinatzen dituen. Emaitzek erakusten dutenez, katalanak balorazio hobea du Kataluniako herrietan La Franjakoetan baino. Kataluniako testuinguruan, identifikazio-aldagaiak dira emaitza hori ondoen azaltzen dutenak; La Franjakoan, berriz, autokonfiantza linguistikoa da faktore nagusia. Bi kasuetan, aldagaiek erakutsitako komunalitateen eragina nabarmena da jarrera linguistikoaren zergatia azaltzeko garaian. • **Hitz-gakoak:** *katalanarekiko jarrerak, Katalunia eta La Franja, erregresio lineala, aldagaien garrantziaren neurriak.*

Abstract. The linguistic attitudes of the speakers of a language can have great impact on the status and evolution of that language, particularly in cases in which there is contact among different speech communities. This study provides a comparative analysis of the attitudes towards the Catalan language among adolescents in the first year of secondary school in different municipalities of Catalonia and the bordering Catalan-speaking region of Aragón, known as La Franja. The primary aim of this article is to explain the causes of language attitude in adolescents. To do so, we use a multiple linear regression model that combines the most significant variables of different empirical and theoretical approaches. The results show a higher appreciation for the Catalan language in the municipalities of Catalonia than in those the neighbouring areas of La Franja. Whilst this situation is best explained by identity variables in Catalonia, linguistic self-confidence is the key factor in the case of La Franja. In both cases, the effects of commonalities among the different variables are noteworthy in explaining language attitudes. • **Key words:** *attitudes towards Catalan, Catalonia and La Franja, linear regression, variable importance measures.*

1. SARRERA

I

Jarrera linguistikoek oso informazio erabilgarria ematen digute hizkuntzen egoera eta bilakaera zer-nolakoak diren azaltzeko, batez ere hiztun-komunitateen arteko ukipena dagoenean. Jarrera linguistikoak norbanakoaren jokabidean hezurmamitzen badira ere, kausa psikosozialen ondorioz eraten eta aldatzen dira (Baker, 1992: 26). Hala, jarrera linguistikoek interes handia piztu dute soziolinguistikaren arloan (Strubell, 2011: 169-181), bereziki elebitasunaren eta haren ondoriozko fenomenoen ikerketari dagokienez; adibidez, diglosia, hizkuntzak ordezkatzeta eta hizkuntzak mantentzea. Jarrerak sozialki hartzen eta aldatzen direnez, eraketa edo aldaketa horren kausak zein diren jakiteak aukera eman diezaguke norbanakoen pertzepzioan eta jokabideetan modu eraginkorra goan eragiteko. Baker-en arabera (1992: 9), jarreraren inguruko azterketek hainbat adierazle sozial erakusten dituzte; hizkuntzen egoerari buruzkoak, pertsonen balorazioetan gertatutako aldaketei buruzkoak, eta baita politika jakin baten ezarpenaren arrakasta-aukerei buruzkoak ere.

Lan honetan, katalanarekiko jarrera linguistikoaren azterketa kuantitatibo bat burutu dugu, Kataluniako eta La Franjako zenbait herritako nerabeei egindako galdeketa bat oinarri hartuta³. Bi lurralde-eremu horietako gaztetxoaren balorazioak alderatu ditugu; izan ere, biek oso bizindar etnolinguistiko desberdina dute, eta horrek eragin handia izan dezake galdetutakoaren jarrera-motan. Hainbat egilek agerian jarri dute Kataluniako ikasleek La Franjakoekin baino hobeto baloratzen dutela katalana (Huguet eta Suils, 1998; Bretxa, Comajoan eta Sorolla, 2009). Beraz, egoki deritzogu bi lurralde horietako nerabeen jarrera linguistikoaren analisi konparatiboa egitea.

Artikulu honek bi helburu ditu. Lehenik, jarrera linguistikoak hartzeko garaian zer faktore psikosozial nagusik esku hartzen duten jakiten saiatuko gara. Hainbat hurbilketa enpiriko eta teorikotan esanguratsutzat jotako faktoreak analisi berean elkartu nahi ditugu, eta aztertutako aldagaian zer eragin erlatibo dituzten jakiten saiatuko gara, erregresio lineal anizkoitzeko analisi bat eginez. Zehatz-mehatz esanda, estandarizatutako erregresio-koefizienteak erabiliko ditugu, bai eta korrelazio erdipartzialeko koefizienteak ere. Eta, bigarrenik, lortutako emaitzetatik abiatuta, aztertutako bi taldeen arteko jarrera-desberdintasunak zergatik gertatzen ote diren ulertzen saiatuko gara.

Jarrera linguistikoek oso informazio erabilgarria ematen digute hizkuntzen egoera eta bilakaera zer-nolakoak diren azaltzeko, batez ere hiztun-komunitateen arteko ukipena dagoenean.

Lan honetan, katalanarekiko jarrera linguistikoaren azterketa kuantitatibo bat burutu dugu, Kataluniako eta La Franjako zenbait herritako nerabeei egindako galdeketa bat oinarri hartuta. Bi lurralde-eremu horietako gaztetxoak balorazioak alderatu ditugu; izan ere, biek oso bizindar etnolinguistiko desberdina dute, eta horrek eragin handia izan dezake galdetutako jarrera-motan.

2. ESPARRU TEORIKOA

I

2.1 Jarrera linguistikoak: aldagai azaltzailea eta aldagai azaldua

Jarreraren konstrukto teorikoa lantzen lehenak William Isaac Thomas eta Florian Znaniecki soziologoak izan ziren, 1918. urtean, Amerikako Estatu Batuetara emigratutako nekazari poloniarrek eguneroko bizitzan zuten jokabideari buruzko azterlan klasikoa egin zutenean. Haien arabera, jarrerak dimentsio mental eta subjektibo bat dute, eta, era berean, dimentsio sozial bat ere badute, gizarteak zehaztutako balioen objektu sozial batenganako pertsonon adierazpentzat hartu behar baitira (Ibáñez, 2003: 186).

Lehen definizioa horixe izan bazen ere, historian zehar jarreraren kontzeptualizazioa aldatuz joan da, hainbat diziplina eta ikuspegi teorikotatik heldu baitzaio. Hala eta guztiz ere, nahikoa hedatuta dago jarrerak hiru osagaien interrelazioaren ondorio direnaren ideia: lehena, osagai kognitiboa, jarreraren oinarri dena, objektu jakin bati buruzko ustez eta ezagutzez osatuta dago; bigarrena, osagai afektiboa, objektu horrekiko jarrera baldintzatzen duten bizipenen, emozioen, sentimenduen eta lehenetsuen multzoa da; eta hirugarrena, jokabideari dagokiona, ekintzaren agerpena da, bai eta jarrerak identifikatzeko aukera ematen duten asmoen adierazpena ere (Baker, 1992: 12). Bestalde, egile gehienek aburuz, jarrera erdiko aldagai bat da, norbanakoek objektu sozialekiko dituzten jokabideak azaltzeko aukera ematen duena. Lan honetan, jarrera-mota jakin bat aztertuko dugu; jarrera linguistikoak, hain zuzen ere. Pertsonen hizkuntzekiko eta barietateekiko egiten dituzten balorazioak dira, eta hizkuntza eta barietate horiek ordezkatzeko dituzten norbanakoekiko eta taldeekiko jarrerari egiten diete erreferentzia (Ryan, Giles eta Sebastian, 1982: 1-2, Baldaquí, 2004n aipatua).

Joshua A. Fishman hizkuntzaren soziologoak adierazten duenez, hizkuntza-jokabideak eta -jarrerak aztertzean, berebiziko garrantzia du hizkuntzaren eta identitatearen arteko erlazioak. Horixe erakusten du Giles eta Johnsonen (1987) identitate etnolinguistikoaren teoriak, Tajfelen (1981) identitate sozialaren teoria oinarri hartuta eraikitakoak. Psikologo sozial horren arabera, kategorizazio eta konparazio sozialeko prozesu batetik eratzen da pertsonen identitatea. Kategoriak erabiltzen dira errealitatea ordenatzeko, sinplifikatzeko eta ulertzeko; horrelaxe kokatzen du norberak bere burua eta sailkatzen ditu besteak gizarte-kategoriatan. Kategorien balorazio positiboa edo negatiboa egiteko, kategoria horiek osatzen dituzten pertsona-taldeak alderatzen dira. Hala, nor bere burua

balorazio hobea duten taldeekin identifikatzeko joera dugu, eta balorazio okerragoa edo negatiboa jasotzen duten taldeak alde batera uztekoa. Bestalde, alderaketa egitean, barne-taldeko kide izatearen sentimendua positiboki sendotzen saiatzen gara; hori dela eta, alderaketatik balorazio negatibo bat ondorioztatzen badugu (hau da, alderdiren bati dagokionez beste talde bat baino egoera txarragoan gaudela uste badugu), hainbat estrategia erabiltzen ditugu egoera hori aldatzeko.

Hortaz, hiztun-komunitateen arteko ukipena dagoenean ezarrirako erlazioetatik sortzen den identifikazio sozialeko prozesuan oinarritzen da identitate etnolinguistikoa.

Norbanakoek beren talde linguistikoko kide izatearen zer balorazio egiten duten ulertzeko, gizarte-identitatearen teoria bizindar etnolinguistikoa teoriarekin ahokatu daiteke. Giles, Bourhis eta Taylor (1977) izan ziren bigarren teoria hori azaltzen lehenak, eta, haien ustez, hizkuntza baten kemena eta bizindarra hainbat faktore sozioestruturalen arabera dira, faktore horien mende egon baitaiteke hiztunentzat haien hizkuntzak duen garrantzia. Faktore horiek hiru dira: lehena, talde linguistiko baten bilakaera demografikoa (hau da, hizkuntza baten hiztunen kopuru erlatiboa); bigarrena, egoera sozioekonomikoa (hau da, talde linguistiko batek zer-nolako aukerak dituen baliabide ekonomikoak eta zerbitzuak lortzeko); eta hirugarrena, erakunde-ordezkapena (talde linguistiko batek zer-nolako kontrola duen erakundeen politikan eta baliabideetan). Jokabidea gidatzen duena bizindar horretaz dugu pertzepzioa da, bizindar etnolinguistiko subjektibo deritzona. Pertzepzio horri ez dio eragiten bizindar objektiboak, baizik eta harreman indibidualen sarearen ondoriozko esperientziak (Clément, 2005: 38).

Bigarren hizkuntzez nola jabetzen garen azaltzeko gizarte- eta tesuinguru-ereduan (Clément eta Noels, 2001; Noels eta Clément, 1996), gizarte-sarea aldagai aurrekarizat proposatzen da bigarren hizkuntzarekiko jarrera linguistiko positiboak eta talde horretako kide izatearen sentimendua azaltzeko orduan. Eredu horretan, konfiantza linguistikoaren konstruktoa ageri da, taldeen arteko harremanak ulertzeko funtsezko elementu gisa. Bigarren hizkuntza bat erabiltzeko unean pertsona batek sentitzen duen estutasun- edo konfiantza-maila gisa defini daiteke. Konfiantza linguistikoa aldagai bitartekari izango litzateke bigarren hizkuntzez jabetzeko prozesuan: beste taldeko kideekin izandako harremanen ezaugarrien (maiztasuna eta kalitatea) arabera da norberak bere buruan duen konfiantza. Era berean, konfiantzak ere izan dezake eragina norberak beste taldearekiko dituen jarreretan, eta, beraz, talde horrekiko identifikazioan.

**Jarrerak
dimentsio mental
eta subjektibo bat
dute, eta, era
berean,
dimentsio sozial
bat ere badute,
gizarteak
zehaztutako
balioen objektu
sozial
batenganako
pertsonon
adierazpentzat
hartu behar
baitira.**

Hiru osagairen interrelazioaren ondorio direnaren ideia: lehena, osagai kognitiboa, jarreraren oinarri dena, objektu jakin bati buruzko usteez eta ezagutzez osatuta dago; bigarrena, osagai afektiboa, objektu horrekiko jarrera baldintzatzen duten bizipenen, emozioen, sentimenduen eta lehentasunen multzoa da; eta hirugarrena, jokabideari dagokiona, ekintzaren agerpena da, bai eta jarrerak identifikatzeko aukera ematen duten asmoen adierazpena ere.

2.2 Jarrera linguistikoetako buruzko ikerketak: Kataluniako eta La Franjako kasuak

Kataluniako eta La Franjako eleaniztasun-egoerei buruz egindako hainbat ikerlanetan, analisiaren zati gisa barne hartu izan dira jarrerak. Adibidez:

Ros, Huici eta Cano (1990): Espainiako estatuko talde linguistikoaren arteko harremanak aztertu zituzten, identitate etnolinguistikoaren teoriaren esparruan. Identitate soziala aztertzeko, identitate kengarriko indize zeritzona osatu zuten, berezko taldearen identitatearen (autonomia-erkidegokoa) eta espainiarraren arteko aldea oinarri hartuta. Ikusi ahal izan zuten, erlazio positibo nabarmena zegoen identitate kengarriaren eta berezko hizkuntza erabiltzeko lehentasunaren artean, bai eta hizkuntza horrekiko sentimenduei dagokienez ere. Azterlan horretan bertan azaldu zuten, identitate kengarri altuagoa zuten talde linguistikoetako kideek berezko hizkuntza taldearen bereizgarritzat hartzen zuten, eta, erabilera azaltzeko, barnetaldearekin lotutako arrazoiak jotzen zuten (desberdintzeko nahia, hizkuntza defendatzea eta barnekoherioa). Aldiz, identitate kengarri baxuko lekuetan, garrantzi handiagoa ematen zioten gaztelaniaren erabilerrari bertako berezko hizkuntzari baino. Gainera, talde batekin edo bestearekin identifikatzea ez zegoen hizkuntzaren mende, beste faktore batzuen mende baizik (adibidez, geografikoa).

Viladot eta Siguan (1992): identitate eta bizindar etnolinguistikoaren teoriak erabili zituzten katalanen jokabide eta jarrera linguistikoak ikeritzeko. Jakin nahi izan zuten zer faktorek duten garrantzi handiagoa katalanarekiko jarreraren aldagaia azaltzeko orduan, eta, horretarako, hizkuntzaren erabilerei eta erabilera horien balorazioei buruzko galdera multzo bat osatu zuten. Azterketa horretatik ondorioztatu daitekeenez, identifikazio etnolinguistikoko aldagaiak dira jarrerekin erlazio gehien dutenak (positiboa, nor bere burua katalantzat hartzea, eta, negatiboa, espainiantzat hartzea). Gainera, aldagai azaltzaile esanguratsu gisa ageri da katalanaren estatusaren pertzepzioa gaztelaniarenarekin alderatuta.

La Franjan egindako hainbat gizarte-ikerketek erakutsi dutenez, oro har, lurralde-eremu horretako biztanle gehienek, katalandunak diren ala ez kontuan hartu gabe, aragoiartzat dute beren burua (Espluga, 2008: 42). La Franjako biztanleentzat, hizkuntza ez da elementu nagusi bat gizarte-identitatea eraikitzeke garaietan. Esplugak (2008) azaltzen duenez, Aragoi, identitate kolektiboa eraikitzeke, iker multzo bat baliatzen dute: botere batzuek Espainiaren irudi jakin bat emateko erabiltzen dituzten identitate-ezaugarriak osatzen dituzten ikurrak, hain

zuzen ere. Sustatzen diren ikur horiek, besteak beste, gaur egungo Kataluniaren zenbait identitate-ezaugarri garrantzitsu alde batera uzten dituzte; hizkuntza, adibidez.

Àngel Hugueta buru duen ikerketa-ildoak hainbat testuinguru sozio-linguistikotako ikasleen jarrerak azaltzen dituzten aldagaiak aurkitzen saiatu da; adibidez, Kataluniaren eta Aragoiren mugako ikasleak (Hugueta eta Suils, 1998) eta Gironako eta Lleidako herri katalan bazuetaoak (Hugueta, 2007). Lan horietan, jarrera eta jokabide linguistikoak azaltzeko, pertsonen sozializazioari ematen zaio garrantzia. Gainera, balioak eta jokabide-ereduak helarazteko garaian familia- eta eskola-testuinguruak duten eragina nabarmentzen da.

Aipatutako bi azterlanen artetik lehenengoan, katalanarekiko eta gaztelaniarekiko jarrerak ikertzen dira, Kataluniaren eta La Franjaren arteko mugako bi eremutako (Baix Segre eta Baix Cinca, hurrenez hurren) institutuko ikasleen lagin bat erabiliz. Bi eremuetan antzematen dira katalanaren aldeko jarrerak; dena den, Baix Cincan balorazio positiboen ehuneko txikiagoa da. Emaiz horri dagokionez, kontuan hartu beharreko faktorea da katalan-eskoletara joaten ziren ikasleen kopurua (La Franjan hautazkoa da); izan ere, eskola horietara joaten ziren ikasleen balorazioak hurbilago zeuden Baix Segreko ikasleek eman zituztenetatik. Jarrera linguistikoetan eragiten duen beste faktore bat familiaren egoera linguistikoa da. Lehen aipatutako Hugueta bigarren azterlana egiteko, Girona eta Lleida hirietako unibertsitate-ikasleek lagin bat erabili zen. Emaiz araberak, hauek ziren katalanarekiko jarrera linguistikoetan gehien eragiten zuten aldagaiak: etxeko hizkuntza (lehen hizkuntzatzat katalana zutenek erakutsi zituzten jarrera positiboak); eskolako hizkuntza-eredua (katalanez ikasten zuten ikasleek erakutsi zituzten hizkuntzarekiko jarrera positiboak); eta baita hirian gehien erabiltzen zen hizkuntza ere (testuinguru soziolinguistikoa, alegia).

Laburbilduz, jarrera linguistikoaren aldagaia kontuan hartzen duten azterlan askok eta askok nabarmentzen dute erlazio handia duela identifikazio-sentimenduekin (etnolinguistikoa, etnonazionala eta abar). Bestalde, gizarte- eta testuinguru-ereduak erakutsi duenez, gizarte-sareak eragin handia du identitatearen eta jarreraren konfigurazioan, eta hizkuntza-erabileran hautemandako konfiantzak bitartekari-lanak egiten ditu. Azkenik, beste zenbait ikerlanek azpimarratu dutenez, etxeko hizkuntzak eta eskolak berebiziko garrantzia dute nerabeen jarreraren eraketan.

Jarrera linguistikoaren aldagaia kontuan hartzen duten azterlan askok eta askok nabarmentzen dute erlazio handia duela identifikazio-sentimenduekin (etnolinguistikoa, etnonazionala eta abar). Gizarte- eta testuinguru-ereduak erakutsi duenez, gizarte-sareak eragin handia du identitatearen eta jarreraren konfigurazioan, eta hizkuntza-erabileran hautemandako konfiantzak bitartekari-lanak egiten ditu. Beste zenbait ikerlanek azpimarratu dutenez, etxeko hizkuntzak eta eskolak berebiziko garrantzia dute nerabeen jarreraren eraketan.

Analisi kuantitatiboa 2.167 neraberekin egin zen. Kataluniako eta La Franjako 24 institututako DBH1eko ikasleak ziren, galdeketak jaso ziren unean ikastetxean zeudenak.

3. IKERKETA-METODOA

3.1 Datuak eskuratzea

Analisi kuantitatiboa 2.167 neraberekin egin zen. Kataluniako eta La Franjako 24 institututako DBH1eko ikasleak ziren, galdeketak jaso ziren unean ikastetxean zeudenak. Bi lurraldeetan hautatutako herrietako institutu guztiak dira (1. taula)⁴. Herri horiek aukeratu ziren, tipologia jakin batzuen erakusgarri baitziren. Tipologia horiek bi aldagai nagusiren konbinaziotik sortzen dira: habitat-mota (hirikoa, erdi-hirikoa eta landakoa) eta inguruneko hizkuntza nagusia (katalana, elebiduna eta gaztelania)⁵. Ikerketa-diseinu horrek RESOL proiektuko helburuei erantzuten die; izan ere, ikerlan hau proiektu horretan kokatuta dago (ikus Bretxa eta Vila, 2012: 3-5). Kataluniako herrien multzoan, 1.947 pertsona aztertu ziren; La Franjakoen multzoan, askoz ere pertsona gutxiago aztertu ziren, 220 zehatz-mehatz esanda. Bertatik bertarako lana 2008-2009 ikasturtean egin zen. Datuak eskuratzeko, RESOL proiektuaren baitan egindako galdeketa soziolinguistiko bat erabili zen, hainbat informazio-mota jasotzen dituena: demografikoa, erabilerei buruzkoa, gaitasunei eta jarrera linguistikoetako dagokiena, kontsumo kulturalari lotutakoa, eta galdetutakoen gizarte-sarearen ingurukoa.

1. taula. Hautatutako herriak

Katalunia		La Franja	
Herriak	n	Herriak	n
Manlleu	198	Fraga	166
Mataró	1.141	Saidí	10
Sant Just Desvern	163	El Torricó	8
Sant Joan Despí	267	Tamarit de Llitera	36
Balaguer	178	—	—
N	1.947	N	220

3.2 Erabilitako aldagaiak

Lan honetan, orain arte egindako jarrerari buruzko ikerlanetan garrantzi gehien izan duten aldagaiak aztertuko ditugu, sexua kontrol-aldagaitzat hartuta. Ondoren zehazten da, aztertu beharreko aldagai bakoitzaren kasuan, zer eraikitze-prozesu egin den galdeketa galderetatik abiatuta, bai eta zer motatakoa den eta zer tinkotasun-maila duen ere:

—Katalanarekiko jarreraren indizea ($\alpha_{Kat.} = 0,77$; $\alpha_{Fr.} = 0,77$): aldagai eskalarra, -10 baliotik (jarrera guztiz negatiboa) 10 baliora (jarrera guztiz positiboa) doana. Indize hau 10 itemen konbinaketatik atera da; haietako 5ek hizkuntzarekiko jarrera positiboegi egiten zieten erreferentzia, eta, beste 5ek, jarrera negatiboegi (ikus Huguet eta Suïls, 1998).

—Identifikazio katalana, aragoiarra, espainiarra: aldagai eskalarra, 0 baliotik (identifikazio baxua) 10 baliora (identifikazio altua) doazena. Aldagai hauek zuzenean atera dira galdeketan egindako galderatik. Galdetutakoegi eskatu zieten zenbakizko eskala batean kokatzeko zer identifikazio-maila zuten autonomia-erkidegoarekin⁶ (Aragoi, La Franjaren kasuan) eta Espainiako estatu osoarekin.

—Gaitasunaren indizea ($\alpha_{Kat.} = 0,85$; $\alpha_{Fr.} = 0,93$): eskala, 0 baliotik (katalanaren ezagutza-mailarik ez izatea) 10 baliora (katalanaren ezagutza-maila oso altua izatea) doana. Lau aldagai eskalarren batezbesteko aritmetikoaren emaitza da. Aldagai horiek mintzamen-, idazmen-, entzumen- eta irakurmen-mailaren autopertzepzioa jasotzen dute (EULC03-tik ateratakoak).

—Konfiantzaren indizea ($\alpha_{Kat.} = 0,86$; $\alpha_{Fr.} = 0,90$): aldagai eskalarra, 1 baliotik (konfiantza baxua) 5 baliora (konfiantza altua) doana. Indize hau 12 itemen konbinaketaren batezbesteko aritmetikotik atera dugu; 6 itemek katalana erabiltzeko orduan sentitutako konfiantzari egiten zioten erreferentzia, eta, beste 6ek, une horretan sentitutako estutasunari (Clément eta Baker, 2001 egokituta).

—Lehen hizkuntza (H1) katalana: aldagai dikotomikoa da; 1 balioa hartzen du lehen hizkuntza katalana denean, eta 0 balioa, gaztelania denean.

—Lehen hizkuntza (H1) gaztelania. aldagai dikotomikoa da; 1 balioa hartzen du lehen hizkuntza gaztelanian denean, eta 0 balioa, katalana denean.

—Katalanak eta gaztelaniak gizarte-sarean izandako erabileraren arteko aldea: eskala, -1 baliotik (gaztelaniaren gehieneko erabilera) 1 baliora (katalanaren gehieneko erabilera) doana. Aldagai hau erakitzeko, galdetutakoegi gizarte-sarean katalanez edo gaztelaniaz gertatzen diren harremanen proportzioen arteko aldea hartu da oinarritzat.

—Sexua (gizona): aldagai dikotomikoa da; 1 balio hartzen du galdetutakoa gizona bada, eta 0 balioa, emakumea bada.

Erabilitako

aldagaiak:

- Katalanarekiko jarreraren indizea.

- Identifikazio katalana, aragoiarra, espainiarra.

- Gaitasunaren indizea.

- Konfiantzaren indizea.

- Lehen hizkuntza (H1) katalana.

- Lehen hizkuntza (H1) gaztelania.

- Katalanak eta gaztelaniak gizarte-sarean izandako

erabileraren arteko aldea.

- Sexua.

Kataluniako herrietako institutueta nerabeen jarrerak La Franjako herrietako nerabeenak baino askoz ere positiboagoak dira.

3.3 Analisi-teknikak

Ikerketa batean, esparru teorikoak aldagai askeen ($X_1, X_2 \dots X_k$) eredu bat zehaztera bultzatzen bagaitu, eta eredu horretatik abiatuta beste mendeko aldagai bat (Y) azaltzen saiatzen bagara, guretzako analisi-teknika aproposena erregresio anizkoitza izango da. Datuak aztertzeke, aldagaiak linealki erlazionatzen direnaren hipotesia hartu dugu abiapuntutzat. Hori dela eta, karratu txikiaren bidezko erregresio lineala erabili dugu haien arteko erlazioak modelizatzeko. Mendeko aldagaiaren eta aldagai askeen edo azaltzaileen multzo baten arteko asoziazio linealaren maila neurtzeko erabil daiteke analisi-prozedura hori. Gainera, erregresioaren teknikari esker, eredu osoaren eragina aurreikus daiteke, eta, hori ez ezik, aldagai iragarle bakoitzaren eragina neur daiteke, elkarren artean izan dezaketen eragina kontrolatuz.

Aldagaien garrantzi erlatiboa ebaluatzeko, estandarizatutako erregresioko koefizienteak (β) eta korrelazio erdipartzialeko koefizienteak (sr) atera ditugu. Erregresio lineal anizkoitzeko analisisian, estandarizatutako erregresioko koefiziente edo beta pisu esaten zaie aldagai askeek mendeko aldagaian duten eragin erlatiboa kalkulatzeko erabili ohi diren koefizienteei. Haien bidez, aldagai aske bakoitzak duen eragina alderatu daiteke, eta, aldi berean, haietako bakoitzak desbideratze-unitate estandar baten gorabehera izaten duenean (gainerakoak egonkor mantenduta) mendeko aldagaian zer aldaketa gertatzen den ikus daiteke. Hala eta guztiz ere, nolabaiteko kolinealtasuna badago aldagai askeen artean, koefiziente horiek erregresoreen bariantza neurtzen dute, eta ezin dute adierazi zer ekarpen garbi egiten dioten aztertutako aldagaiari. Hortaz, ikerlan honetan, analisi osagarri bat proposatzen da, korrelazio erdipartzialeko koefizienteetatik abiatuta. Haren balioa ber bi eginda, aldagai aske bakoitzak «esklusiboki» ereduari ematen dion bariantzaren proportzioa lortuko dugu. Horrela, aldagaien efektu bakarrak zein diren zehaztu daiteke, bai eta haien arteko konbinazio linealek komunean azaldutako bariantzaren kopurua zein den ere.

4. EMAITZEN AURKEZPENA


4.1 Kataluniako eta La Franjako nerabeen jarrera katalanarekiko

Kataluniako herrietako institutueta nerabeen jarrerak La Franjako herrietako nerabeenak baino askoz ere positiboagoak dira (ikus 1. grafikoa eta 2. taula). Ikastetxe katalan guztiak kontuan hartuta, jarrera 6,4koa da batez beste, nahiz eta balio modala eskalaren goialdean dagoen

(hau da, 10ean). Bestalde, banaketaren balio zentrala 8 da. Jarreraren sakabanatze-mailari begiratuta, esan daiteke sakabanatu samar daudela balio zentraleri dagokienez: 4,3ko desbideratze tipikoa eta 6ko IQRa ((*interquartile range*). La Franjako herrietako ikasleei dagokienez, jarreraren batez bestekoa dezente baxuagoa da (zehatz-mehatz esanda, 3,6koa), nahiz eta, kasu honetan ere, balio modala eskalaren goialdean dagoen. Banaketaren balio zentrala beste kasukoaren erdia da: 4, alegia. Aldagaiaren sakabanatzeari dagokionez, herri katalanetan baino sakabanutuagoa dago, 5,2ko desbideratze tipikoa eta 8ko IQRa baititu.

Laburbilduz, esan daiteke alde handiak daudela bi lurraldeetako herrietako ikasleek katalanarekiko dituzten jarreretan; izan ere, La Franjako nerabeenak, positiboak izan ohi diren arren, Kataluniakoenenak baino bi aldiz negatiboagoak dira. Gainera, bi lurraldeetan sakabanatze-maila altu samarra bada ere, La Franjako kasuan jarrerak sakabanutuagoak daude eskala osoan; Kataluniako testuinguruan, aldiz, kasuak balio altuenetan kontzentratuagoak daude.

1. grafikoa. Katalanarekiko jarrerak eskalan banatuta. Kataluniako eta La Franjako institutuak



Iturria: Guk egina, RESOL proiektuko datuak oinarri hartuta.

2. taulan, gainerako aldagaien emaitzen deskribapen labur bat ageri da. Identifikazioari dagokionez (katalana, aragoiarra eta espainiarra), bi lurraldeetan batez bestekoak altuak direla ikus daiteke. Dena den, bi lurraldeetako ikasleek dagokien autonomia-erkidegoarekin duten identifikazio-mailaren batez bestekoa antzekoa bada ere (7,6 Katalunian, eta 7,8 La Franjan), identifikazio espainiarraren batez bestekoa altuagoa da La Franjan (7,3 Kataluniaren kasuan, eta 8,9 La Franjarenean). Hala-ber, desberdintasunak antzeman dira hizkuntza-gaitasunari eta -kon-

La Franjako nerabeenak, positiboak izan ohi diren arren, Kataluniakoenenak baino bi aldiz negatiboagoak dira.

Bi lurraldeetako ikasleek dagokien autonomia-erkidegoarekin duten identifikazio-mailaren batez bestekoa antzekoa bada ere, identifikazio espainiarraren batez bestekoa altuagoa da La Franjan.

fiantzari dagokienez, batez bestekoak altuagoak baitira Kataluniako ikasleengan La Franjakoengan baino (8,7 eta 6,8 hurrenez hurren gaitasunari dagokionez, eta 4,12 eta 3,43 autokonfiantzari dagokionez). Katalanaren eta gaztelaniaren erabilerari begiratuz gero, alde nabarmenagoak hauteman daitezke. Bi lurraldeetako ikasleek gehiago erabiltzen dute gaztelania katalana baino beren gizarte-sarean (GS); hala ere, Katalunian La Franjan baino askoz ere txikiagoa da bi hizkuntzen arteko aldea (-0,09 eta -0,54 hurrenez hurren). Katalunian galdetutako ikasleen herenak katalana du lehen hizkuntza (H1); La Franjan, ordea, galdetutako ikasleen %10,9k bakarrik du H1 katalana. H1 gaztelaniari dagokionez, oso emaitza antzekoak erakutsi dituzte bi lurraldeetako ikasleek (%37,2 Katalunian eta %42,7 La Franjan). Azkenik, herri bakoitzean galdetutako ikasleen erdiak, gutxi gorabehera, gizonak dira.

2. taula. Estatistika-datuen laburpena

	Katalunia			La Franja		
	Batezbest.	Desb. est.	Ehunek.	Batezbest.	Desb. est.	Ehunek.
1. Kat. jarrera	6,38	4,28		3,64	5,17	
2. Identif. kat./arag.	7,60	3,06		7,87	3,13	
3. Identif. esp.	7,38	3,28		8,96	2,35	
4. Gaitasuna kat.	8,76	5,26		6,82	10,67	
5. Konfiantza kat.	4,12	0,71		3,43	0,96	
6. Kat.-gazt. GSan	-0,09	0,76		-0,54	0,51	
7. H1 kat.			33,90			10,90
8. H1 gazt.			37,20			42,70
9. Sexua (gizona)			51,00			54,60

Iturria: Guk egina, RESOL proiektuko datuak oinarri hartuta.

4.2 Katalanarekiko jarrerak hartzeko garaian gehien eragiten duten faktoreak

3. taulan, kontuan hartutako aldagaien arteko Pearson-en zero mailako korrelazio-koefizienteak (r) ageri dira. Zenbait desberdintasun antzematen dira bi aldagaiko erlazioetan, bi lurraldeetako ikasleek katalanarekiko duten jarrerari dagokionez: Katalunian, korrelazio handia dago identifikazio-aldagaiekin ($r_{21} = 0,57$ eta $r_{31} = -0,21$); La Franjan, berriz, asoziazio-maila askoz ere baxuagoa da ($r_{12} = 0,16$ eta $r_{13} = -0,12$). Ikasleen katalanaren gizarte-sareko erabileraren eta lehen hizkuntzaren datuei begiratuta ikus daitekeenez, jarreraren aldagaiarekin duten asoziazioa nabarmena da Kataluniaren kasuan ($r_{61} = 0,40$ eta $r_{71} = 0,38$); La Franjan, ordea, erlazioak ez dira hain garrantzitsuak ($r_{16} = 0,24$ eta r_{17}

= 0,22). Bestalde, nolabaiteko kointzidentzia dago gaitasunari dagokionez, bai eta autokonfiantzari dagokionez ere, asoziazio-maila garrantzitsua antzematen baita herri guztietan, batik bat La Franjan ($r_{41} = 0,27$ eta $r_{51} = 0,42$ Katalunian; eta $r_{14} = 0,42$ eta $r_{15} = 0,48$ La Franjan). Esan beharra dago sexuak (zehazki, gizona izateak) asoziazio negatiboa txikia duela mendeko aldagaiarekin ($r_{91} = -0,11$ eta $r_{19} = -0,19$).

3. taula. Pearson-en zero mailako korrelazio-koefizienteak kontuan hartutako aldagaien artean*

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1. Kat. jarrera		0,16	0,12	0,42	0,48	0,24	0,22	-0,17	-0,19
2. Identif. kat./arag.	0,57		0,68	0,17	0,17	0,13	0,08	0,00	0,10
3. Identif. esp.	-0,21	0,04		0,21	0,22	0,10	0,05	0,08	0,03
4. Gaitasuna kat.	0,27	0,40	0,04		0,66	0,37	0,27	-0,16	-0,12
5. Konfiantza kat.	0,42	0,49	-0,12	0,50		0,45	0,31	-0,17	-0,11
6. Kat.-gazt. GS-an	0,40	0,42	-0,42	0,24	0,37		0,38	-0,38	-0,17
7. H1 kat.	0,38	0,41	-0,37	0,23	0,34	0,63		-0,30	-0,06
8. H1 gazt.	-0,34	-0,33	0,31	-0,19	-0,26	-0,55	-0,55		-0,01
9. Sexua (gizona)	-0,11	-0,05	-0,04	-0,06	-0,05	-0,02	-0,01	0,03	

* Kataluniako institutuetaoak (diagonalaren azpitik) eta La Franjako institutuetaoak (diagonalaren gainetik).

Iturria: Guk egina, RESOL proiektuko datuak oinarri hartuta.

Halaber, korrelazioen taulari begiratuta ikus daitekeenez, asoziazio garrantzitsuak daude gainerako aldagaien artean. Hori ikusita, zenbait aldagai alde batera uztea erabaki dugu, erregresio-analisan erredundantziarik eta kolinealtasunik egon ez dadin: bi lurraldeen kasuan, korrelazio-maila altua hauteman daiteke katalanaren gaitasunaren eta konfiantzaren artean. Hortaz, bi aldagaietan lehena kendu dugu; izan ere, teoriarik, hizkuntza-konfiantza kontzeptu zabalagoa da, eta hizkuntza-gaitasuna barne hartzen du. Gainera, hautemandako konfiantzak asoziazio altuagoa du jarreraren aldagaiarekin. Hori ez ezik, bi lurraldeetan, korrelazio altua dago gizarte-sareko katalanaren eta gaztelaniaren erabileraren aldearen eta H1 katalana eta gaztelaniaren artean. Kasu horretan, hasierako hizkuntza mantentzea eta beste biak kentzea erabaki dugu. Aurreko ataletan aipatu denez, hasierako hizkuntza aldagai garrantzitsua izan da literatura zientifikoan. Erabaki hori hartzea ere bultzatu gaitu gizarte-sareko hizkuntzak hein handi batean hasierako hizkuntzaren mende egon daitezkeela jakiteak. Gainera, H1 aldagaiak interrelazio gutxiago du aldagai askeekin.

Aldagai horiek kenduta ere, korrelazio espezifikoak ikus daitezke lurralde bakoitzari dagokion herri-multzoan. La Franjako institutuen kasuan, aragoiar sentitzeak eta espainiar sentitzeak erlazio positibo altua du ($r_{32} = 0,68$); Kataluniako institutuen kasuan, ordea, ez dago asoziaziorik. Aldagai horiek duten garrantzi teorikoa zein enpirikoa kontuan hartuta, ereduari jasotzea erabaki dugu. Azkenik, Kataluniaren kasuan, interrelazioa hautematen da identifikazioko, hizkuntza-konfiantzako eta H1 katalaneko aldagaien artean. Aldagai horiek ez daude intentsitate berarekin erlazionatuta La Franjako testuinguruan. Kasu honetan ere, aldagaiak mantentzea erabaki dugu, jarrerengan zer eragin duten aztertzeko.

Aldagai iragarleak aukeratu ditugu jada, eta, orain, katalanarekiko jarrerak azaltzean zer eragin duten neurtuko dugu. 4. taulan, eta modu argigarrian 2. grafikoan, erregresio lineal anizkoitzeko analisisian emaitza nagusiak daude jasota.⁷ Lehenik eta behin ikusten duguna zera da: kontuan hartutako aldagaiak dituen erregresio-ereduak azalpen-gaitasun handiagoa duela Kataluniako institutuak nerabeen jarrera linguistikoaren kasuan La Franjakoekin baino. Zehatz-mehatz esanda, Kataluniako herrietan, mendeko aldagaiaren bariantzaren %40 azaltzen laguntzen du ereduak ($R^2 = 0,407$, zehazki); La Franjako nerabeen jarrerari dagokionez, ordea, hautatutako aldagaien konbinazioa ez da %30era iristen ($R^2 = 0,286$).

4. taula. Erregresio lineal anizkoitza. Kataluniako eta La Franjako institutuak

	Katalunia (N = 1588)		La Franja (N = 150)	
	β	sr^2	β	sr^2
Identif.kat./arag.	0,471	0,146	0,195	0,019
Identif. esp.	-0,172	0,0024	-0,125	0,007
Konfiantza kat.	0,143	0,015	0,0448	0,0169
L1 kat.	0,071	0,003	0,081	0,006
Sexua (gizona)	-0,098	0,009	-0,176	0,0030
R^2	0,407		0,286	
R^2 doi.	0,405		0,261	
Faktoreen bariantza		0,198		0,231
Komunalitateak		0,209		0,055

Iturria: Guk egina, RESOL proiektuko datuak oinarri hartuta.


Erregresio-analisiaren ondorioz ikusten dugun bigarren gauza garrantzitsua zera da: kontuan hartutako aldagaiek ez dituztela eragin berberak aztertutako bi lurraldeetan. Kataluniako herrietako nerabeen kasuan, beta koefizienteek erakusten dute identitate-aldagaiek eragiten dutela gehien katalanarekiko jarreretan: positiboki eta hein handiago batean katalan sentitzeak ($\beta = 0,471$), eta negatiboki eta hein askoz ere txikiago batean espainiar sentitzeak ($\beta = -0,172$). Garrantzi gehien duten aldagaien artetik bigarrena hizkuntza-konfiantza da. Lehen hizkuntzak eta sexuak ia ez dute garrantzirik. Ordena hori bera dute korrelazio erdipartzialek ber bi eginda: identifikazio katalanak %14,6ko informazio «esklusiboa» ematen dio ereduari; ekarpen hori gainerako aldagaiena baino askoz ere handiagoa da. Bestalde, nabarmendu beharra dago aldagai azalduaren bariantzaren %20,9 ereduko iragarleen arteko hainbat konbinazio linealen emaitza dela. Ehunekoei dagokienez (2. grafikoa), koefizientearen %51 (guztizko bariantzaren $sr^2 = \%20,9$ eginda lortuta) komunalitateen ondoriozkoa da; gainerako %49a, berriz, aldagai bakoitzaren efektu espezifikoei dagokie. Beraz, laburbilduz, jarreraren bariantzaren zati handiena ereduko aldagaien artean adierazita dago, baina azpimarratzeko modukoa da identifikazio katalanak egiten duen ekarpen eksklusiboa.

La Franjako herrien kasuan, erregresioko eta korrelazio erdipartzialeko koefizienteek erakusten duten egoera Kataluniakoaren oso bestelakoa da. Beta pisuek adierazten dute azalpen-gaitasun handiena duen aldagaia katalanarekiko hizkuntza-konfiantza dela ($\beta = 0,448$); izan ere, gainerako beste edozein aldagaik baino askoz ere pisu handiagoa du. Korrelazio erdipartzialeko koefizienteak ber bi eginda, zera adierazten dute: hizkuntza-konfiantzak %16,9ko ekarpen eksklusiboa egiten diola mendeko aldagaiaren bariantzaren azalpenari. Bestalde, nahiz eta beta koefizienteek adierazten duten garrantzi gehien duten aldagaien artean hurrengoak identifikaziokoak direla, sexuak ekarpen espezifikoki handiago du; zehatz-mehatz esanda, lortutako R^2 -aren %10 (guztizko bariantzaren $sr^2 = \%3$). Hala, badirudi gizon izateak eragin negatiboren bat izan dezakeela jarrera linguistikoetan. Bestalde, Kataluniako herrien kasuan bezalaxe, lehen hizkuntzak garrantzi txikia du. Kataluniako institutuetan ez bezala, identifikazio-aldagaiek ez dute horrenbesteko garrantzirik. Azkenik, nabarmendu beharra dago komunalitateak ere garrantzitsuak direla mendeko aldagaiaren azalpenean; izan ere, lortutako guztizko R^2 -aren %19 da (guztizko bariantzaren $sr^2 = \%5$).

Kataluniako herrietako nerabeen kasuan, beta koefizienteek erakusten dute identitate-aldagaiek eragiten dutela gehien katalanarekiko jarreretan.

Garrantzi gehien duten aldagaien artetik bigarrena hizkuntza-konfiantza da. Lehen hizkuntzak eta sexuak ia ez dute garrantzirik.

2. grafikoa. Bariantza espezifikoaren eta komunaren ehunekoa, lortutako R²-arekin erlazionatuta*



*Korrelazio erdipartzialeko koefizienteak ber bi eginda kalkulatu dira.

Iturria: Guk egina, RESOL proiektuko datuak oinarri hartuta.

ONDORIOAK

I

Lan honekin, jarrera linguistikoak hartzeari buruzko ikerketaren arloko azalpen-gaitasunari ekarpena egiten digu. Baliatutako analisi-tekniken bidez, zera ikusi ahal izan dugu: hainbat eredu teorikotatik ateratako alda-gaiek zer-nolako eragina duten nerabeek katalanarekiko jarrerak hartzean.

Lehenik eta behin egiaztatu dugu Kataluniako herrietako nerabeen jarrerak eta La Franjako herrietako nerabeenak desberdinak direla; izan ere, lehen kasuan bigarreanean baino bi aldiz positiboagoak dira.

Kataluniako testuinguruan, pertzepzio horiek azaltzeko faktore garrantzitsuena identifikazio-sentimendua dela jakin dugu: batik bat identifikazio katalana, eta, hein txikiago batean eta modu negatiboan, identifikazio espainiarra. Aitzitik, La Franjan, galdetutako ikasleek identifikazio-maila altua badute ere Aragoirekin eta Espainiarekin, ez dugu erlazio hori hauteman. Ros, Huici eta Canok (1990) erakutsi zuten, bizindar etnolinguistikoa altua den lurraldeetan, hizkuntza oso elementu garrantzitsua da identitatea eraikitzeke orduan. Aldiz, bizindar etnolinguistikoa baxua den lekuetan, hizkuntzak ez du garrantzi handirik identitateari dagokionez.

Kataluniako herrietan konfiantza linguistikoak ez du garrantzi handirik nerabeen jarrerak azaltzeko orduan; La Franjakoetan, berriz, erlazio

positibo nabarmena hautematen da. Hala, jarrera positiboagoak erakusten dituzten nerabeak, segur aski, katalana ikasi dutenak, katalana erabiltzeko segurtasun handiagoa dutenak, eta hizkuntzaren erabilera baloratu dezaketenak dira. Esan beharra dago, testuinguru honetan, jarrerekin erlazio-maila altuagoa duela hautemandako konfiantzak egileek aztertutako hizkuntza-gaitasunak baino.

Galdeketa erantzun dutenen hasierako hizkuntzari dagokionez, esan dezakegu ez dela esanguratsua izan aztertutako bi testuinguruetan. Hugueta eta Suilsek (1998) eta Hugueta (2007) beren ikerlanetan aldagai horri garrantzia eman badiote ere, badirudi eragin eskasa duela gainerako aldagaiek kontrolatzen dutenean.

Azkenik, azpimarratzeko modukoa da komunalitateek azaldutako bariantzaren ehuneko altua. Kataluniako kasuan ikusi denez, kontuan hartutako aldagaiek beren azalpen-gaitasunaren zati handi bat partekatzen dute, eta horrek adieraz dezake dimentsio berari egiten dietela erreferentzia mendeko aldagaia azaltzeko orduan. La Franjari dagokionez, komunalitateek ez dute horrenbesteko garrantzirik, baina testuinguru horretan ere hauteman da komunean azaldutako bariantzak ehuneko altua duela.

Emaitza horiek erakusten dute zer-nolakoa den egoera aukeratutako Kataluniako eta La Franjako herrietan. Hala ere, ikerlan honek badu muga bat: ezin dugu bermatu aztertutako bi lurraldeetako DBH 1eko ikasle guztiak ordezkaturik daudenik. Ikerlan honen beste gabezia bat da ez direla aztertu jarrera linguistikoaren eta tokiko identifikazioaren artean egon litezkeen erlazioak. Bestalde, gogoan izan behar da, kurbaren doikuntza garrantzitsua lortu dugun arren, hobetu egin litekeela mendeko aldagaia azaltzeko informazio berria eman dezaketen aldagaiek gehituz. Bukatzeko, lehenago aipatu dugunez, aldagai iragarleen konbinazio linealek azaldutako bariantzaren ehuneko altuak aurkitu ditugu. Interesgarria izango litzateke erlazio horiek zein diren argitzea azalpen-ereduen bidez, hobeto jakiteko zein interrelazio dauden aldagai azaltzaileen artean. Beraz, kontu horiei etorkizuneko ikerlanetan heldu beharko diegu.

Artikulu honen hasieran galdetzen genuen zergatik ote diren desberdinak bi lurraldeetako nerabeen jarrera linguistikoak. Eskuratutako emaitzek erakutsi dutenez, ikasleek hautematen duten konfiantza linguistikoak garrantzi handia du La Franjako herrietan, bertan katalanak bizindar txikiagoa baitu Katalunian baino. Hala eta guztiz ere, dirudienez, norberaren hizkuntza-taldearekin identifikatua sentitzea da hizkuntzaz egiten diren balorazioen arteko desberdintasunak eragiten di-

Egiaztatu dugu Kataluniako herrietako nerabeen jarrerak eta La Franjako herrietako nerabeenak desberdinak direla; izan ere, lehen kasuan bigarrean baino bi aldiz positiboagoak dira.

**Bizindar
etnolinguistikoa
altua den
lurraldeetan,
hizkuntza oso
elementu
garrantzitsua da
identitatea
eraikitzeke
orduan. Aldiz,
bizindar
etnolinguistikoa
baxua den
lekuetan,
hizkuntzak ez du
garrantzi
handirik
identitateari
dagokionez.**

tuen faktorea. Hala ere, lehenago azaldu dugunez, Kataluniaren kasuan, norberaren komunitatearekin identifikatua sentitzeak eragin positibo handia du jarrera linguistikoetan; La Franjaren kasuan, ordea, ez dago espainiarraz beste identifikaziorik, eta, beraz, identitatearen faktoreak ez du herri katalanetan duen eragin bera.

ESKERRAK

Artikulu honen egileak eskerrak eman nahi dizkie Xavier Vila eta Llorenç Comajoan irakasleei, lanaren hasierako bertsioetan egindako gomendio eta zuzenketa guztiengatik.

OHARRAK

1. Artikulu hau lehenbizi *Treballs de Sociolingüística Catalana*, 23. zk. (2013), 287.-302. or. argitaratu da <http://revistes.iec.cat/index.php/TSC>

2. KORRESPONDENTZIA: Josep Ubalde. Centre Universitari de Sociolingüística i Comunicació, Universitat de Barcelona. Gran Via de les Corts Catalanes, 585. 08007 Barcelona. Tel.: 934 037 065. Faxe: 934 035 757. Helbide elektronikoa: jubalde@ub.edu.

3. Lan hau egiteko erabili ditugun datuak *Resocialització i llengües (RESOL): els efectes lingüístics del pas de l'educació primària a secundària en contextos plurilingües* (Birsozializazioa eta hizkuntzak [RESOL]: Testuinguru eleaniztunetan lehen hezkuntzatik bigarren hezkuntzara igarotzeak dituen ondorio linguistikoak) proiektutik atera ditugu. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak finantzaturako proiektua da (HUM2006-05860/FILO). Ikerlari nagusia: F. Xavier Vila i Moreno doktorea. Beste talde batek ere lagundu du proiektua: Kataluniako Generalitateko Unibertsitate eta Ikerketa Laguntzak Kudeatzeko Agentziak (AGAUR) aintzatetsitako Grup d'Estudi de la Variació (2009 SGR 521) ikerketa-talde finkatuak, hain zuzen ere.

4. Hauek dira aukeratutako Kataluniako herriak: Manlleu ($n = 198$), Mataró ($n = 1.141$), Sant Just Desvern ($n = 163$), Sant Joan Despí ($n = 267$) eta Balaguer ($n = 178$). Eta hauek La Franjakoak: Fraga ($n = 166$), Saidí ($n = 10$), El Torricó ($n = 8$) eta Tamarit de Llitera ($n = 36$).

5. Harrigarria gerta daiteke ondoren aurkeztuko ditugun emaitzetan analisiko indizeen eta koefizienteen garrantzi-maila kontuan hartu ez izana. Testuan adierazten denez, ikerketa honetan herri «tipiko» batzuk aztertzean jarri dugu arreta, eta kasuak ez ditugu ausaz aukeratu. Hori dela eta, ez litzateke egokia izango inferentzia estatistiko bat egiten saiatzea. Ikerketa honen helburua arretaz aztertzea da, eta, hala, eskuratutako datuek aukera ematen dute hautatutako herrietako DBHko ikasleek erakutsitako jarrerak interpretatzeko. Datu horiek, gainera, oso lagungarriak izan daitezke Katalunia eta La Franja osoko DBH 1eko ikasle guztien jarrerak gutxi gorabehera nolakoak izan daitezkeen jakiteko.

6. Galdeketa bazegoen identifikazio europarraren mailari buruzko galdera bat, bai eta zehaztu gabeko beste bi eskala ere, galdeketa erantzuten zutenei beste identitate-aukera batzuk eransteko aukera emateko (tokiko identifikazioak, linguistikoak eta abar). Ikerlan honetan ez dira aztertu beste aukera horiek; hurrengo lanetan heldu beharko diegu. Hala ere, esan beharra dago La Franjan galdetutako ikasleen artean, %4,1ek erantzun zuela katalan sentitzen zela. Erantzunaren maiztasuna baxua denez, ikerlan honetan alderdi horiek ez aztertzea erabaki dugu.

7. Erregresio-ereduaren multikolinealtasun-maila zein den jakiteko, aldagaien tolerantzia-adierazleak eskuratu dira, eta hauek izan dira batezbesteko emaitzak: Kataluniaren kasuan, 0,75 (tartea: 0,6-0,9), eta, La Franjaren kasuan, 0,73 (tartea: 0,4-0,9). Beta koefizienteen eta korrelazio erdipartzialeko koefizienteen alderaketaren bidez kudeatuko da egoera hori. Inferentzia estatistikorik egiteko asmorik ez dugunez, ez da egiaztatzen hipo-

tesi-kontrasteak erabiltzeko baldintzak bete ote diren. Azkenik, ohartarazi behar dugu aldagai anitzeko analisisian asko murriztu dela kasuen guztizko kopurua, erantzunik ezaren ondorioz (-359 eta -70 pertsona Kataluniako eta La Franjako herrietan, hurrenez hurren). Hala eta guztiz ere, pertsona-bolumenak analisirako nahikoa izaten jarraitzen du, eta, beraz, erabaki da ez inputatzea balioak eta analisisik kentzea.

ERREFERENTZIAZKO BIBLIOGRAFIA

- BAKER, Colin (1992). *Attitudes and language*. Clevedon: Multilingual Matters.
- BALDAQUÍ, Josep M. (2004). *La percepció de la vitalitat etnolingüística pels jóvens de l'Alacantí*. Bartzelona: Publicacions de l'Abadia de Montserrat.
- BRETXA, Vanessa; COMAJOAN, Llorenç; SOROLLA, Natxo (2009). «De les practiques monolingües familiars a la identificació bilingüe: el cas dels preadolescents de Mataró i la Franja». *Noves SL: Revista de Sociolingüística* (negua). Sarean ikusgai dago: <http://www6.gencat.net/llengcat/noves/hm09hivern/bretxa_comajoan_sorolla1_9.htm>.
- BRETXA, Vanessa; VILA I MORENO, F. Xavier (2012). «Els canvis sociolingüístics en el pas de primària a secundària: el projecte RESOL a la ciutat de Mataró». *Treballs de Sociolingüística Catalana*. 22. zk.
- CLÉMENT, Richard (2005). «Identitat, adaptació i ús lingüístic: una perspectiva psicosocial». In *Llengua i identitat*. Bartzelona: Fundació Congrés de Cultura Catalana, 35.-50. or.
- CLÉMENT, Richard; BAKER, Susan (2001). «Measuring social aspects of L2 acquisition and use: scale characteristics and administration». *Research Bulletin* [University of Ottawa. School of Psychology. Language Research Laboratory], 1. zk.
- CLÉMENT, Richard; NOELS, Kimberly (2001). «Interethnic contact, identity, and psychological adjustment: the mediating and moderating roles of communications *Journal of Social Issues* 57. zk., 557.-577. or.
- ESPLUGA, Josep (2008). «Dificultats i potencialitats de la llengua catalana per a generar identitat social a la Franja». In MASSIP, Àngels (koord.). *Llengua i identitat*. Bartzelona: Publicacions i Edicions de la Universitat de Barcelona, 39.-46. or.
- EULC03: TORRES, Joaquim (koord.); VILA I MORENO, F. Xavier; FABÀ, Albert; BRETXA I RIERA, Vanessa; PRADILLA, Miquel Àngel (2005). *Estadística sobre els usos lingüístics a Catalunya 2003: Llengua i societat a Catalunya en els inicis del segle XXI*. Bartzelona: Generalitat de Catalunya. Departament de la Presidència. Secretaria de Política Lingüística: Institut de Sociolingüística Catalana. (Publicacions de l'Institut de Sociolingüística Catalana. Estudis; 8)
- GILES, Howard; BOUHRIS, Richard; TAYLOR, Donald (1977). «Towards a

- theory of language in ethnic group relations». A: GILES, Howard (ed.). *Language, Ethnicity and Intergroup Relations*. London: Academia Press, 307.-348. or.
- GILES, Howard; JOHNSON, Patricia (1987). «Ethnolinguistic identity theory: a social psychological approach to language maintenance». *International Journal of the Sociology of Language*, 68. zk., 69.-100. or.
- HUGUET, Ángel (2007). «Language use and language attitudes in Catalonia». In LASAGABASTER, David; HUGUET, Ángel (ed.). *Multilingualism in European Bilingual Contexts: Language Use and Attitudes*. Clevedon: Multilingual Matters, 17.-39. or.
- HUGUET, Ángel; SUÏLS, Jordi (1998). *Llengües en contacte i actituds lingüístiques: El cas de la frontera catalano-aragonesa*. Bartzelona: Horsori.
- IBÁÑEZ, Tomás (ed.) (2003). *Introducció a la psicologia social*. Bartzelona: Universitat Oberta de Catalunya.
- NOELS, Kimberly; CLÉMENT, Richard (1996). «Communicating across cultures: social determinants and acculturative consequences». *Canadian Journal of Behavioural Science*, 28 (3). zk., 214.-228. or.
- ROS, María; HUICI, Carmen; CANO, Ignacio (1990). «Categorización lingüística, identidad social y atribución social». A: MUSITU OCHOA, Gonzalo (koord.). *Psicología social y sociedad del bienestar*. I. liburukia. Bartzelona: PPU, 43.-49. or.
- STRUBELL, Miquel (2011). «Psicología social». *Treballs de Sociolingüística Catalana*, 21. zk., 169.-181. or.
- TAJFEL, Henri (1981). *Human groups and social categories: Studies in social psychology*. Cambridge: Cambridge University Press.
- VILADOT, Maria Àngels; SIGUAN, Miquel (1992). «Aproximación empírica a la teoría de la identidad etnolingüística en el contexto catalán». *Anuario de Psicología*, 52. zk., 79.-93. or.